

SUKARRIETA
ESKOLA
SAIAKUNTZARAKO
ZENTROA



ANIZ-GUZU
E

SESZ



Sukarrieta Eskola Saiakuntza Zentroko (SESZ) talde pedagogikoak txosten hau garatu du egonaldian zehar tailer hau garatuko duten irakasleentzat, baita ere tailer honen inguruan interesa duen edonorentzat.

Ikastetxe desberdinetako ikasleek zein irakasleek ingurumen hezkuntzako proiektuak garatzeaz gain hainbat tailer egiten dituzte astebeteko egonaldian. Tailer bakoitza bi orduko hiru saiotan dago antolatuz, lasaitasunez garatzeko moduan.

SESZeko lan pedagogikoan ikuspegi eraikitzailea eta ebaluazioa dira oinarriak eta garrantzia handia hartzen dute, besteak beste, talde-lanak, berdinen arteko ikasketak, aniztasunaren trataerak eta irakasleak ikasleekiko duen jarrera hurbilak.

Ildo berean jarraituz, tailerraren garapenarekin irakasleek esku-hartze pedagogikoa aberasteko aukera dute.

Alde batetik, tailerretan ikastetxe desberdinetako ikasleak elkartzen dira errealitate eta kultura anitz bilduz eta horrek aniztasunaren trataeran sakontzea ahalbideratzen du. Bestetik, talde lanean aritzen dira esku lan bat eginez, eta aukera paregabea zabaltzen da berdinen arteko ikasketa bultzatu eta ikasketa esanguratsua garatzeko.





Aurkibidea

1- SARRERA.....	3
2- HELBURUAK	4
3- PLANGINTZA.....	5
3.1- TAILERRA SAIOZ SAIO.....	6
• 1. SAIOA.....	6
• 2. SAIOA.....	11
• 3. SAIOA.....	16
4- ERANSKINAK	22
• I ERANSKINA: "Asmoen orria".....	22
• II ERANSKINA: "Arduradunen orria".....	23




1~ SARRERA

Ehungintzaren sorrera gizakia bere gorputza babesteko ehunak erabiltzen hasi zenekoa da. Egipton lehen ehungailuaren garapena aurrerapen garrantzitsua izan zen eta bertako piramidetako marrazkietan ehuntzen ari diren zenbait pertsona ikus ditzakegu. Eta mendeak igaro ahala, ehungintzatik sortutako produktu asko eta asko apaingarri gisa erabiltzen hasi ziren lekuak nahiz pertsonak apaintzeko.

Gure herrialdean ere aspalditik lantzen dira ehunak eta artilea eta lihoa erabili izan dira lehengai gisa. Lehen, ehungailuan ehundu ondoren, jantzi desberdinak egiten ziren eskuz. Hala ere, egun, marka oso ezagunak erabiltzen dituzten enpresek zuzentzen dute ehungintzaren industria. Publizitate kanpaina handien bidez, eroslearen arreta lortzen dute; eta horrek, eskuz egindako produktuen eskasia ekarri du.

Dena den, eskuz egindako ehungintzak bizirik dirau oraindik eta beste herrialde batzuetan berebiziko garrantzia du. gure produkzio-lanean.



XIX. mendeko frantziako ehungintza tailer baten ilustrazioa

3~ HELBURUAK

TAILERREN HELBURU OROKORRAK

- Talde jardueretan aktiboki parte hartzea, norberari dagozkion ardurak erantzukizunez hartuz, norbere eta besteen ekarpenak balioetsiz eta besteekiko harreman orekatu eta eraikitzaileak sortuz, lankidetzan, errespetuan eta elkertasunean oinarritutako bizikidetzara eraikitzeko.
- Norbere elaborazio artistikoetan konfiantza garatzea, egitearekin gozatzuz eta norbere garapen pertsonalari zein taldekoari egiten dizkion ekarpenak baloratuz, norbere autoestima sendotzeko eta ideia zein sentimenduen adierazpen gaitasuna hobetzeko.
- Ondasun kultural eta artistiko ezberdinak ezagutzea eta balioestea, espresiorako baliabideak modu estetiko eta sortzaile batean pertsonalizatuz, artea eta kultura ideia, sentimendu eta esperientzien adierazpen gisa ulertzeko eta baloratzeko eta ondarearen kontserbazioan eta berrikuntzan parte hartzeko.



EHUNGINTZA TAILERREKO HELBURUAK

- Ondare kulturalaren adierazpen artistikoa ezagutzea eta baloratzea, hormak apaintzeko erabiltzen ziren ehunak eginez, adierazpen modu desberdinen kontserbazioa eta berrikuntzan parte hartzeko.
- Norbere ekoizpenak diseinatzea eta elaborazio artistikoan konfiantza garatzea, kolore ezberdinetako artilea erabiliz, sormena garatzeko, sentimenduak adierazteko eta gozatzeko.
- Talde giro lasaian ekoizpenak sortzea, norbere lanekin eta hizketaldirako sortzen den giro aproposarekin gozatzuz, elkar lagunduz, garapen pertsonalean eta talde garapenean hazteko.

4~ PLANGINTZA

Ehungintza tailerra aurrera eramateko planteatzen den plangintza honako hau da:

1. SAIOA

- 1- Gelaren antolaketa
- 2- Taldearen aurkezpena
- 3- Asmoak
- 4- Gelaren aurkezpena
- 5- Arduradunen izendapena
- 6- Irazkiaren muntaia
- 7.-Ehuna:
"Tafetan" puntua
- 8.- Litsak "Flekoak"
- 9.- Tailerraren bilketa
- 10.-Balorazioa

2. SAIOA

- 1- Gelaren antolaketa
- 2- Ehunaren jarraipena:
 - a) kolore desberdinen konbinaketa
 - b) Puntu teknika ezberdinak
 - d) Irudi baten ikasketa
- 4- Poltsaren apainketa
- 5- Tailerraren bilketa
- 6- Balorazioa

3. SAIOA

- 1- Gelaren antolaketa
- 2- Ehunaren jarraipena:
 - a) kolore desberdinen konbinaketa
 - b) Puntu teknika ezberdinak
 - d) Irudi baten ikasketa
- 3- Lanaren amaiera
- 4.- Tailerraren bilketa
- 5.- Tailerraren balorazioa



4.1 PLANGINTZA SAIOZ SAIO

1. SAIOA

Lagunartean gustura egon eta zerbait eginez une atseginak bizi nahi dira. Horregatik, saio honetako lehenengo momentuak garrantzitsuak izango dira hasieratik giro atsegina sortzeko eta kideen arteko harremanak finkatzen hasteko. Tailerra gauzatzeko taldekideen asmoak kontuan hartuz, taldekatze orekatuak egitea eta arduren banaketa egitea ezinbestekoak izango dira.

Ehungintza adierazpen artistiko gisa ezagutzeko eta baloratzeko, lehen teknika eta puntu bat ikasiko ditugu koloretako artilea erabiliz, hormak apaintzeko ehunak egiteko. Horretarako, alde zurretik ehungailuetan irazkiak prestatuko dira.


Saioa momentu desberdinetan bereiziko da. Hona hemen saioaren antolaketa eta garapena:

	Momentuak:	Materiala:
20 min	1) Gelaren antolaketa 2) Taldearen aurkezpena 3) Asmoak 4) Gelaren aurkezpena 5) Arduradunen izendapena	Asmoen orria Arduradunen orria
45 min	6) Irazkiaren muntaia	Irazkia Kotoizko haria Artaziak Etiketak Arkatzak
15 min	7) Ehuna: "Tafetan" puntua	Artilea Guraizak Orratza Orrazia
25 min	8) Litsak "Flekoak"	Guraizak Kartoi zatia (16x11) Orratza Artilea
5 min	9) Tailerraren bilketa	
10 min	10) Balorazioa	

1.- GELAREN ANTOLAKETA

Tailerra hasi baino lehen gela antolatuta izatea garrantzitsua da ikasleak sartzen direnean lasaitasunez leku bat hartzen joateko eta gelaren egitura kokatzen joateko.

Tailer honetan lankidetzaz eta talde lana landu nahi dira. Horretarako, mahai guztiak elkartuz eta laukizuzen bat eratuz, denak mahaien inguruan kokatuko dira, lanean lasai ari direla solasaldirako une aproposa izanik.



2.- TALDEAREN AURKEZPENA

Taldean elkartu diren ikasleak ikastetxe desberdinetakoak dira, oraindik ez dira elkar ezagutzen. Tailerreko momentuak konpartitu eta elkarlanean arituko direnez, irakasle zein ikasle bakoitzaren aurkezpena egingo da elkar ezagutzen hasteko (nor den, zein ikastetxetako den, zein proiektutan dagoen ...).

Bestalde, ikasleek dakarten motibazio maila neurtzeko, tailerra beraiek aukeratutakoa den edota gustukoa duten ala ez galdetuko da. Honek taldean sor daitekeen giroa aurreikusten lagunduko du.

3.- ASMOAK

Materiala:
Asmoen
orria

Ikasleek dituzten nahiak, interesak eta helburuak ... jakitea lagungarri izango da irakasleon esku-hartzea egokitzeko.

Esandakoak jasotzeko, euskarri gisa, "Asmoen orria" (I Eranskina) erabiliko da.

Irakasle eta ikasleek tailer honetako asmoak elkarrekin adostuko dituzte. Horretarako honako galderak erabili ahal dira: *Zein asmo duzue tailer honetarako? Zeintzuk dira tailer honetarako dituzuen nahiak? Zer egitea espero duzue tailer honetan?...*

Asmoen tresna honekin ikasleen hainbat itzaropen eta nahi agertuko dira, baina tailerren helburuak bermatzeko interesgarria da asmo hauek ziurtatzea: *lagunak egitea, ondo pasatzea, tailerrari buruz ikastea ...*

"Asmoen orria" tailerren prozesua erregulatzeko eta azken balorazioa egiteko tresna izango da.

4.- GELAREN AURKEZPENA

Tailerrean ikaslea autonomiaz mugi dadin erabiliko diren baliabide guztien aurkezpena egingo da. *Tresnak, artileak, guraizak ...* Non aurki ditzaketen erakusten da eta tailerren garapena egoki joan dadin hauen ordenaren premia azaltzen zaie.

5.- ARDURADUNEN IZENDAPENA



Materiala:
Arduradunen
orria

Tailerraren garapena era antolatu, lasai eta ordenatuan egiteko, arduradunak izendatuko dira.

Horretarako euskarri gisa, "arduradunen orria" (II Eranskina) erabiliko da.

Saio bakoitzerako hiruzpalau arduradun izendatuko dira eta beraien erantzukizunen artean materiala eta tresnak mahaietan eta ikasleen artean banatzea izango da. Bukaeran, tailerra biltzerakoan, material eta tresna horiek armairuetan gordeko dituzte berriro. Bitartean, arduradunak ez diren ikasleek gela txukunduko dute.

6.- IRAZKIAREN MUNTAIA

Aipatzen den materiala 6, 7 eta 8 puntuetarako izango da.

MATERIALA


- Artilea
- Kotoizko hari
- Etiketak
- Arkatzak

TRESNAK


- Irazkia
- Guraizak
- Orratza
- Kartoi zatiak

PROZEDURA:

1. Irazkiaren muntaian ikasleek binaka egingo dute lan.
2. Ehungailuan jartzen diren hari bertikalei *irazkia* deitzen zaie.
3. *Irazkiaren* hasierako eta amaierako korapiloak beti ehungailuaren beheko aldean ipiniko dira, hari solterik gelditu ez dadin.



4. Irakasleak ziurtatu beharko du hariak tente eta korapiloak ondo lotuta daudela.
5. Irazkia ondo jarri eta gero, ehuna lotuko duen oinarria burutu beharko da (ehungailuan markatuta dago). Horretarako kotoizko hari bi hartuko dira (Luzera: markoaren zabalera baino 10 cm. gehiagokoa). Kotoizko hari bat hartu eta irazkiaren harien artean pasatu, hau da, hari bertikalen gainetik eta azpitik, alternatiboki.
6. Gero, bigarren kotoizko hariarekin gauza berbera, baina oraingo honetan aurrekoaren alderantziz sartu, (gora-behera, gora-behera). Hari biek korapiloak egurraren albo bietan egingo dira. Oinarria eginda dago!!!




7. Ez ahaztu ikasle bakoitzak ehungailuari bere izena jartzea, horretarako etiketak eta arkatzak banatuko dira.




7.-EHUNA: TAFETAN PUNTUA

PROZEDURA:

1. Ehuntze lanarekin hasteko gustuko artilea aukeratuko da eta bi aldiz mahaiaren zabalera neurtuko da luzera hori duen artile zatia izateko (2m).
2. Artilearen mutur bat "lanzaderaren" alde zapalean eutsiz, orratzaren atzetik pasatu eta beheko sartunean finkatuz buelta eman anezkari, alde horretatik jarraitzeko. Prozesua errepikatzen da azkenean ia artile guztia biribilkatuta izan arte. Orratzaren muntaia ondo menperatu dutela ziurtatzeko prozesua birritan egingo da.
3. Bazterretan hari solterik ez gelditzeko, IRAZKIAREN erdialdetik hasi eta bukatu behar da beti.
4. Tafetan puntua errazena da. Artilea irazkiaren harien artetik doa, baten gainetik eta hurrengoaren azpitik, ilara bat eginuz. Prozesuan zehar errakuntzaren bat egonez gero, egindakoa askatu egin beharko da berriro egiteko.
5. Bukatutakoan hurrengoarekin jarraitu behar da lehen aipatu den bezala, hau da gainetik amaitu bada hurrengoa azpitik hasi. Noizbehinka ehuna orraziaren laguntzaz beheratuko da, lasaiegia gera ez dadin. Lau joan etorri egin ondoren ondo legoke orraziarekin beheratzea.



6. Garrantzitsua da oihaleko albo biak zaintzea, ikasleen berezko joera ehuna estuegi edo zabalegi egitea delako.



8.-LITSAK (FLEKOAK)

PROZEDURA:


1.Gure tapizaren oinarria ez ikusteko ehuna bera luzatu eta apaintzeko flekoak egingo dira. Flekoak egiteko pausoak hurrengo hauek dira:

A.- Flekoak mozteko

- Artilea aukeratu
- Kartoiaren alde estuaren inguruan 20 buelta eman artileari. Kontutan hartu hasierako eta amaiera muturrak alde berean izan behar direla. Eta alde horretatik hain zuzen ere, artaziekin ebaki.

B.- Flekoak jartzeko

- Lehenengo bi harien gainetik kokatzen da artile zatia eta beraien tartetik ateratzen dira muturrak azpitik gora. Mutur biak ipini altuera berdinean flekoak estutu aurretik.
- Flekoak ilara bitan jarriko dira.
- Flekoak irazkiaren harien artean sartzen dira, azkena eta lehena elkartuz (1-2, 2-3, 3-4), marrazkian ikusten den moduan.



9.- TAILERRAREN BILKETA

Saioaren hasieran izendatu diren arduradunen erantzukizuna izango da tailerra jasotzea, dena dagokion lekuan gordetzea, eta tailerreko gainontzeko ikasleek gela txukunduko dute.

10.- BALORAZIOA

Saio bakoitza bukatzean tailerra baloratuko da. Momentu honi dagokion denbora eskaintzea garrantzitsua izango da. Saioaren balorazioa erabilgarria izango da beraien asmoak betetzen doazen,

adostutakoa aurrera doan, zaila egin zaien, gustatu zaien ... ikusteko eta horrela, hurrengo saioetan irakasleon interbentzio pedagogikoa egokitzeko.



2. SAIOA

Bigarren saio honetan, norbere ekoizpenak diseinatzen eta sormena garatzen hasiko gara puntu eta teknika berriak aurreko teknikekin uztartuz elaborazio artistikoan konfiantza hartzeko.

	Momentuak:	Materiala:
10 min	1) Gelaren antolaketa	
80 min	2- Ehunaren jarraipena: a) kolore desberdinen konbinaketa b) Puntu-teknika ezberdinak d) Irudi baten ikasketa	Kolore desberdinetako artilea Guraizak Orratza Orrazia
10 min	4) Poltsen apainketa	Poltsak Etiketak Errotulki eta margoak Kolak
10 min	5) Tailerraren bilketa	
10 min	6) Balorazioa	

1.- GELAREN ANTOLAKETA

Tailerra hasi baino lehen gela antolatuta izatea garrantzitsua da, ikasleak sartzen direnean lasaitasunez leku bat hartzen joateko. Saio honetako arduradunek materiala eta tresnak banatzen duten bitartean gainontzekoek aulkiak jartzen joango dira eguna komentatuaz.



2.-EHUNAREN JARRAIPENA:


Zerbait bukatzeko geratu bada lehen saioan hori bukatuko da. Ondoren lanaren jarraipenari ekingo zaio. Hiru aukera desberdin eskaintzen dira. Tafetanarekin jarraitu daiteke kolore desberdinak konbinatuz, puntu-teknika berriak ikasi daitezke edo irudiren bat egiten ikasi daiteke. Ondorengo lerroetan 3 aukerak garatuko dira. Hartutako aukera edozein izanda ere beharrezkoak diren material eta tresnak berdinak dira.

MATERIALA

- Artilea
- Poltsa
- Errotulki eta margoak

TRESNAK

- Irazkia
- Guraizak
- Orratza
- Orrazia
- Kartoi zatia



2A) KOLORE DESBERDINEN KONBINAKETA:

PROZEDURA:


1. Ehuntze lanarekin jarraitzeko gustuko kolore desberdinetako artilea aukeratu eta bi aldiz mahaiaren zabalera neurtuko da luzera hori duen artile zatia izateko (2m).
2. Lanean jarraitzeko lehenengo saioko tafetan puntuan jarraituko da.

2B) PUNTU-TEKNIKA DESBERDINAK

➤ TXIRIKORDA PUNTUA

PROZEDURA:

1. Txirikorda puntua berezia da, mutur batetik hasten da. Horretarako mutur horretara erditik hasita tafetan puntua eginez helduko da.
2. Irazkiaren hariak banan-banan inguratuz egiten da puntu hau. Eskumalderantz doanean, eskumaz hartuko da orratza, bere punta beste aldera begira jarriz, hau da, ezkerretarantz. Ezkerretarantz doanean, alderantziz egingo da, ezkerreko eskua erabiliz eta orratzaren punta eskumarantz hain zuzen ere.
3. Txirikorda joan-etorri osoan egin eta gero, berriro tafetanarekin erdiraino etorri.




➤ ZUTABE PUNTUA

PROZEDURA:


1. UHINAK

- Kolore desberdinetako bi artile eta orratzekin erditik hasita kolore bakoitzarekin bazter banatara joaten da. Gero, aldizkatuz, joan-etorri osoak egiten dira artile bakoitzarekin. Era honetara “uhinak” lortzen dira.



2. DAMA JOLASA


- Beste posibilitate bat “dama jolasa” lortzea da. Horretarako, kolore bakoitzarekin joan-etorri osoak egin beharrean, kolore batekin joan eta bestearekin etorri egingo gara.



➤ BI ORRATZEKIN EGINIKOA TAFETANA

PROZEDURA:

1. Puntu hau eskuma aldean hasita komeni da.
2. Irazkiaren hariak nahi diren beste aldiz inguratuko dira (4, 5,...); hori bai, hari guztiei buelta kopuru berbera emanaz.




➤ KOLORE ELKARKETAK

Erdetik hasiko kolore biek in eta alde banatara joko da. Kolore bakoitzarekin joan etorriak egin eta berriro elkartzen diren puntuan aplikatuko da nahi den elkartze-teknika.

Marrazkiak dituen tapiza egiterakoan kontutan hartzekoak:


1.- Kolore desberdinetako hariak ez dira elkar gurutzatzen. Beraz geroago atzetik josten den hutsune bat gelditzen da.



2.- Kolore batekoak zein besteak hari berean bukatzen dute, zipi-zapa itxura ematen dutelarik.



3.- Koloreak irazkiaren bi hariren tartean gurutzatzen dira



4.- Honako hau da kolore bereizketa handieneko kasua



2D) IRUDI BATEN IKASKETA

➤ ZUHAITZ BAT EGIN

PROZEDURA:

- 1.- Zuhaitzaren oinarria nahi den puntuz egiten da.
- 2.- Enborra tafetan puntuarekin egiten da. Irazkiaren bost edo sei hari besterik ez dira hartzen (erdikoak badira hobeto).
- 3.- Hostoak litsekin (flekoekin) egiten dira.
- 4.- Zuhaitzaren bi alboetan geratzen diren hutsuneak tafetan puntuarekin betetzen dira, haria zuhaitzaren alde batetik bestera azpitik pasatuz.



4.- POLTSEN APAINKETA

Dena garbi eta jasota dagoenean, paperezko poltsak banatzen dira ikasleek apaintzeko.

Azken egunean etxera eramango dituzte astean zehar tailerrean egindako produktuak, horretarako bakoitzak bere poltsa apainduko du. Poltsak armairuan aurkituko dira, baita txantiloiak, margoak, etab.

5.- TAILERRAREN BILKETA

Saioaren hasieran izendatu diren arduradunen erantzukizuna izango da tailerra jasotzea, dena dagokion lekuan gordetzea, eta tailerreko gainontzeko ikasleek gela txukunduko dute.

6.- BALORAZIOA

Saio bakoitza bukatzean tailerra baloratuko da. Momentu honi dagokion denbora eskaintzea garrantzitsua izango da. Saioaren balorazioa erabilgarria izango da beraien asmoak betetzen doazen, adostutakoa aurrera doan, zaila egin zaien, gustatu zaien ... ikusteko eta horrela, hurrengo saioetan irakasleon interbentzio pedagogikoa egokitzeke.

3.SAIOA

Aurreko saioetan bezala, norbere lanarekin gozatu eta hizketaldirako sortzen den giro aproposaz baliatuko gara ehunaren ekoizpenarekin jarraitzeko. Elkar laguntzan oinarritutako talde giro lasai honek garapen pertsonala eta talde garapena ahalbidetuko ditu.

Bestalde, ehunen gainean, norbere sormenari tarte emanaz, irudi desberdinak osatuko dira. Era honetan ondare kulturala adierazpen modu gisa baloratuko dute beronen kontserbazioan sentsibilizatuz.

	Momentuak:	Materiala:
30 min	1) Gelaren antolaketa	
30 min	2- Ehunaren jarraipena: a) Kolore desberdinen konbinaketa b) Puntu-teknika ezberdinak d) Irudi baten ikasketa	Kolore desberdinetako artilea Guraizak Orratzak Orrazia
60 min	4) Lanaren amaiera 5) Poltsen prestaketa	Artilea Kotoizko haria Guraizak Orratza Orrazia Makilatxoa
10 min	6) Tailerraren bilketa	
10 min	7) Tailerraren balorazioa	

1.- GELAREN ANTOLAKETA

Tailerra hasi baino lehen gela antolatuta izatea garrantzitsua da, ikasleak sartzen direnean lasaitasunez leku bat hartzen joateko. Saio honetako arduradunek materiala eta tresnak banatzen duten bitartean gainontzekoek aukiak jartzen joango dira eguna komentatuz.

2.-EHUNAREN JARRAIPENA:


Zerbait bukatzeko geratu bada lehen saioan hori bukatuko da. Ondoren lanaren jarraipenari ekingo zaio. Hiru aukera desberdin eskaintzen dira. Tafetanarekin jarraitu daiteke kolore desberdinak konbinatuz, puntu-teknika berriak ikasi daitezke edo irudiren bat egiten ikasi daiteke. Ondorengo lerroetan 3 aukerak garatuko dira. Hartutako aukera edozein izanda ere beharrezkoak diren material eta tresnak berdinak dira.

MATERIALA

- Artilea
- Poltsa
- Errotulki eta margoak

TRESNAK

- Irazkia
- Guraizak
- Orratza
- Orrazia
- Kartoi zatia



2A) KOLORE DESBERDINEN KONBINAKETA:

PROZEDURA:


3. Ehuntze lanarekin jarraitzeko gustuko kolore desberdinetako artilea aukeratu eta bi aldiz mahaiaren zabalera neurtuko da luzera hori duen artile zatia izateko (2m).
4. Lanean jarraitzeko lehenengo saioko tafetan puntuan jarraituko da.

2B) PUNTU-TEKNIKA DESBERDINAK

➤ TXIRIKORDA PUNTUA

PROZEDURA:

1. Txirikorda puntua berezia da, mutur batetik hasten da. Horretarako mutur horretara erditik hasita tafetan puntua eginez helduko da.
2. Irazkiaren hariak banan-banan inguratuz egiten da puntu hau. Eskumalderantz doanean, eskumaz hartuko da orratza, bere punta beste aldera begira jarriz, hau da, ezkerretarantz. Ezkerretarantz doanean, alderantziz egingo da, ezkerreko eskua erabiliz eta orratzaren punta eskumarantz hain zuzen ere.
3. Txirikorda joan-etorri osoan egin eta gero, berriro tafetanarekin erdiraino etorri.




➤ ZUTABE PUNTUA

PROZEDURA:


1. UHINAK

- Kolore desberdinetako bi artile eta orratzekin erditik hasita kolore bakoitzarekin bazter banatara joaten da. Gero, aldizkatuz, joan-etorri osoak egiten dira artile bakoitzarekin. Era honetara “uhinak” lortzen dira.



2. DAMA JOLASA


- Beste posibilitate bat “dama jolasa” lortzea da. Horretarako, kolore bakoitzarekin joan-etorri osoak egin beharrean, kolore batekin joan eta bestearekin etorri egingo gara.



➤ BI ORRATZEKIN EGINIKOA TAFETANA

PROZEDURA:

1. Puntu hau eskuma aldean hasita komeni da.
2. Irazkiaren hariak nahi diren beste aldiz inguratuko dira (4, 5,...); hori bai, hari guztiei buelta kopuru berbera emanaz.




➤ KOLORE ELKARKETAK


Erdetik hasiko gara kolore biek eta alde banatara joko dugu. Kolore bakoitzarekin joan etorriak egin eta berriro elkartzen diren puntuan aplikatuko dugu nahi dugun elkartze-teknika.

Marrazkiak dituen tapiza egiterakoan kontutan hartzekoak:


1.- Kolore desberdinetako hariak ez dira elkar gurutzatzen. Beraz geroago atzetik josten den hutsune bat gelditzen da.



2.- Kolore batekoak zein bestekoak hari berean bukatzen dute, zipi-zapa itxura ematen dutelarik.



3.- Koloreak irazkiaren bi hariren tartean gurutzatzen dira.



4.- Honako hau da kolore bereizketa handieneko kasua.



2D) IRUDI BATEN IKASKETA

➤ ZUHAITZ BAT EGIN

PROZEDURA:


- 1.- Zuhaitzaren oinarria nahi den puntuz egiten da.
- 2.- Enborra tafetan puntuarekin egiten da. Irazkiaren bost edo sei hari besterik ez dira hartzen (erdikoak badira hobeto).
- 3.- Hostoak litsekin (flekoekin) egiten dira.
- 4.- Zuhaitzaren bi alboetan geratzen diren hutsuneak tafetan puntuarekin betetzen dira, haria zuhaitzaren alde batetik bestera azpitik pasatuz.



4.- LANAREN AMAIERA

PROZEDURA:

1. Bukatzerakoan, kotoizko hari bi hartuko dira eta oihalaren hasieran egin zen berbera egingo da, hari biak elkarrekin lotuz.
2. Irazkiaren behealdeko hariak kontu handiz moztuko dira, binan-binan lotu korapilo bikoitza eginez, eta horrela denak lotu arte.
3. Goiko aldeko hariak moztu barik ateratzen dira, eta bakoitzari korapilo bikoitza ematen zaie ahalik eta oihaletik hurbilen.
4. Goiko aldeko harietan geratzen diren kiribilen artean makilatxo bat pasatzen da. Jarraian, bi artilezko hari luzeak (1.25 m) bi laguneren artean hartu eta bakoitzak alde banatara bueltak emango ditu. Muturrak elkartu eta makilako bi muturretan lotu, oi hala eskegi ahal izateko.



5.- POLTSEN PRESTAKETA

Ikasle bakoitzak, bai gaurko eta baita aurreko egunetako ehuna apainduta dauden poltsetan sartuko ditu azken egunean etxera eramateko prest gera daitezen.

6.- TAILERRAREN BILKETA

Saioaren hasieran izendatu diren arduradunen erantzukizuna izango da tailerra jasotzea, dena dagokion lekuan gordetzea, eta tailerreko gainontzeko ikasleek gela txukunduko dute.

7.- TAILERRAREN BALORAZIOA

3 saioak bukatzean tailerra baloratuko da. Momentu honi dagokion denbora eskaintzea garrantzitsua izango da. Tailerraren balorazioa erabilgarria izango da lehenengo saioan adostutako asmoak bete diren, adostutakoa aurrera eraman den, zaila egin zaien, gustatu zaien, nola sentitu diren ... jakiteko, tailerrean beharrezkoak diren aldaketak egiteko eta irakasleon interbentzio pedagogikoa egokitzeko.



ASMOAK

-
-
-
-

ARDURADUNAK

1. SAIOA

2. SAIOA

3. SAIOA

